



• **HERRIAREN BIZIA**
Liburutegia aldatzen da

• **TXOSTENA**
2025eko biztanleen
errola

• **HIRIGINTZA**
THParen 1. aldaketa



EDITORIALA 3

HERRIAREN BIZIA..... 4 - 5

Liburutegiaren bilakaera
Marguerite Schwab ikastetxearen irekitzea
Ehun urteko bat gehiago

GAZTERIA 6

San Laurendi ikastetxea zinemari buruz itzulia
A Petits Pas, Lehen Hautzaroaren Bitartekaritza-gunea

MUGIKORTASUNA 7

TXIK TXAK eta eskaera bidezko garraioa
ikasleen joan-jinak

TXOSTENA 8 - 9

2025eko biztanleen errola

HIRIGINTZA..... 10-11

THParen 1. aldaketa

ELKARTE-BIZITZA 12 - 13

Polysports elkartearen arrakastak
Téléthon ekitaldia, sekula baino arrakastatsuago

HURBILTASUNA 14

Zuntza Arbonan
Hitzarmena Animalien Babeserako elkartearekin
Aparatzeko arauak

EGOERA ZIBILA / IRITZI ZUTABEA 15

2024. URTEARI BEGIRA 16



IDEKITZEKO ORENAK

Arbonako herriko etxea

10 route du Bourg
64210 Arbonne
Tél. 05 59 41 94 66
www.arbonne.fr
mairie@arbonne.fr

Irekitzeko ordutegia

Astelehena 9h - 12h
Asteartea 14h30 - 18h
Asteazkena 9h - 16h
Osteguna 14h30 - 18h
Ostirala 9h - 12h

Argitalpen-zuzendaria

Marie-José Mialocq

Erredakzio Batzordea

Komunikazio batzordea

Argazki kredituak

Herriko Etxea - Herriko elkarteak

Azala

Delphine Elhorga

Inprimaketa eta diseinua

Antza Komunikazio Grafikoa

Harremanetarako

communication@arbonne.fr



Arbonar maiteak,

2024. urtea obratze nagusi batekin bururatu dugu: **Marguerite Schwab eskola publiko berriaren eraikuntza**; komunitate guzia proiektu horren beha zegoen, zergak emendatu gabe obratu da testuinguru ekonomikoa zaila izanik ere. Kantina laster egingen da ekipamendu horren osatzeko.

Urtarrileko sartzeaz geroztik eskolako hurrek gozaten dute beren loratzerako asmatu leku hori, geroko belaunaldien aldeko gure engaiamenduaren sinbolo.

Estreinaldi ofiziala heldu den udaberrian egitekoa da; obratze eder hori elkarrekin ospatzeko parada izanen da, beraz. Ate irekiak ere izanen dira eskola horren bisitatzeko, orain gure herriaren funtsezko zutabea da.

Herriko kazeta honetan aipatzen dira ere:

- Biztanle kontaketa; dudarik gabe 2 500 biztanleren hozka gaindituko dugu, hainbeste beha gauden farmaziaren lekualdaketarako beharrezko hozka.
- Eskaera Bidezko Garraioaren abiatzea, mugikortasunen sindikatuak proposatua, zuen eguneroko joan-etorriak errazteko.
- Gure hirigintza dokumentuaren bilakaera, gure antolamendurako funtsezko tresna.

Milesker handi bat gure herria bizitasunez eta goxotasunez biziartzten duten boluntarioei. Zuei esker goxo da Arbonako herrian bizitzea.

Aitzina urte berrirako!

Herriko Kontseiluaren izenean eta ene izenean, agiantzarik hoberenak desiratzen dizkizuet 2025erako. Urte honek sorpresa onak ekar ditzala, arrakasta ederrak, eta elkartasunez eta bakoitzaren loratzeaz markatua izan dadila. Pentsamen berezi bat bakarrik eta ahulduak diren pertsonentzat.

"Elkarrekin agurtu dezagun gure adiskidetasuna zahartzen duen urte berri hau, gure bihotzak zahartu gabe." Hori zioen Victor Hugok 1829ko abenduaren 29an Alfred de Vigny adiskideari

Marie José Mialocq

Arbonako Auzapeza

HERRIAREN BIZIA

ONGI ETORRI ARBONAR BERRIEI

Berriki etorri zara Arbonara bizitzera. Gure herriari buruz gehiago jakiteko eta azken berriak ukaiteko, hona egin dezakezuna:

- Gure webgunea bisitatu: www.arbonne.fr
- Berripaperean harpidedun egin
- Zure burua aurkeztu

Berripaperean harpidedun egiteko: communication@arbonne.fr

LIBURUTEGIA ALDATZEN DA



“Liburutegiaren adiskideak” elkartearekin elkarlan hertsian, Herriko Etxeak kultura eta gizarte gune bazterrezin hori bizkortzea eta aberas-tea hitz egiten du. Berritasunak eta proposatutako jarduerak ezagutu:

Lantalde azkartua:

Duela guti, Laurence Manusset herriko lantaldean sartu da liburutegiaren arduradun gisa. Zenbait tailer animatzen ditu eta zuen zerbitzuko dago liburuak hautatzen laguntzeko.

Ordutegi zabalagoa:

Publikoaren igurikapenei hobeki erantzuteko xedez, ordutegia berrikusia eta zabaldua izan da:

- Asteazkena: 09:00 - 12:00 eta 14:00 - 17:00
- Osteguna: 14:30 - 19:00
- Larunbata: 09:00 - 12:00

Zine-taldea abian jarria:

Hilabeteko azken ostegun guzietz, zine-taldea bilduko da herriko kontseiluko gelan. Arbonako liburutegiaren kideentzat soilik den ekitaldia zinemako klasiko famatuak (berriz) ezagutzeko aukera da.

Giro goxoko irakurketa taldea:

Zure literatura bihozkadak partekatu nahi dituzu? Liburutegiak antolatzen duen irakurketa taldean sar zaitez! Lehen topaketa urtarrilaren 16an izanen da, osteguna, 17:00etatik 18:30era. Ondotik, lagun arteko hurrupaldia izanen da. Zure lekua erreserbatu.

Harremanetarako: telefonoa 05 59 41 89 85 eta helbide@bibliotheque.arbonne@gmail.com



EHUN URTEKO BAT GEHIAGO GURE HERRIAN



Pierrot Etchelecou jaunaren ondotik, Marie-Victoire Peigneguy andereak, Thérèse izengoitiz ezagutua, bere ehun urteak ospatu berri ditu. Beti alai eta panpoxa, ehun urteko emazte erneak bizi eta oroitzapen betezko begi urdin eta dirdiratsuz liluritzen gaitu. Mende oso bateko historia lagun, Thérèsek Arbonako aldaketak ikusi ditu urteak joan ahala.

Arbonan sortua “Chantchienia” familia-etxaldean, Thérèsek neskendako San Laurendi “eskola libroan” ibili zen. 18 urterekin, bigarren mundu gerla betean, Arbona utzi zuen, adin bereko beste hainbeste gazteek bezala, familia diruz laguntzeko. Sehi egon zen Belgikan, baina ahal bezain laster itzuli zen anitz ments zuen sorterrira, familiarekin eta lagunekin bilitzeko.

Arbonan ezkondu zen 1952an Larreburua etxeko Jean Peigneguy jaunarekin. Zoritxarrez, zenbait urteren buruan, alargun egon zen eta bakarrik gelditu zen bost haurrak hezteko. Hutsik gabeko deliberamendu eta ereduzko kuraiarekin, harrera-familiaren ardura eta etxaldeko lana eraman zituen aldi berean.

1983an Thérèsek “familia handiaren” medaila jaso zuen, herriko beste bi amekin batera. Haur anitz duinki hezi dituztenei esleitutako sariak haien merezimendua ohoretan ezartzen du eta herriaren ikustatea erakusten du.

Betidanik, Thérèse familia eta lagunak bere biziaren erdi-erdian ezarri ditu. Familia-loturen garrantzia transmititzen jakin du, balio handiko ondarea utziz. Gaur egun, bere herrian bizi da beti, bere haurren, hamar biloben eta bederatzi birbiloben amultsutasunez inguratirik.

MARGUERITE SCHWAB IKASTETXEAREN IREKITZEA

Lehiaz igurikatua zelarik, 2025eko urtarrileko sartzeak aldaketa handia markatzen du Ikastetxe Publiko-ko ikasleentzat, baita pedagogia taldearentzat eta herriko taldearentzat ere. Alabaina, Marguerite Schwab ikastetxeak bere atek ireki ditu ofizialki!



2025eko urtarrilaren 6an, ikasleek beren jostaleku berria ezagutzeko eta ikasgela moderno eta goxoetan jartzeko poza ukan dute. Sartzeko tenoreak jo du, eta dena prest zen ikasleak eremu berri horretan errezibitzeko.

Trantsizioa lasaiki bizi dezaten, **Herriko Etxeak ikasleei, irakasleei eta gurasoei zuzendutako bisita pribatuak antolatu zituen sartzeari baino lehen.** Abantailazko une horiek handizki preziatuak izan dira, haurrei beren ikastetxe berria ezagutzeko aitzin gustu zoragarria eskainiz. Irakasleak, herriko langileak, hautetsiak eta gurasoak bihotz-bihotzez eskertu nahi ditut, leku aldaketa baldintza hobere-netan iragan dadin aritu direlarik.

Jantegiari dagokionez, eraikitzea 2025eko martxoan hasiko da, urte bukaeran martxan jartzeko gisan. Anartean, ikastetxearen aitzinean jarritako behin-behineko moduluek ikasleei baldintza egokietan bazkaltzeko bidea eskaintzen diete.

Herriko taldeak ondoko Bil Tokiko egoiliarak eskertu nahi ditu bihotz-bihotzez, antolaketa obrek sortu dituzten behin-behineko eragozpenen aitzinean erakutsi duten gogo ona eta pazientziagatik.

AHO ARTATZAILE BULEGOAREN BERRIREKITZEA

Lehen Hegoas jaunak zuen Arbonako aho artatzaile bulegoak bere atek berririkiko ditu 2025eko urtarrilaren 13an, burgu barnean, zenbait zaharberritze obren ondotik. Ongi etorria izan dadila.

2024 - 2025 SAN LAURENDI IKASTETXEA ZINEMARI BURUZ ITZULIA!

Ikasturte honetan, ikasgela proiektuak zinemaren lelopean antolatuak dira.

Irailetik goiti, ikasleak eta Arbonako MAPOko egoiliarak maiz biltzen dira belaunaldi arteko tailer batzuetarako hala zinemari buruz (film mutuetatik ekoizpen garaikideetara) nola arte plastikoei buruz, besteak beste afixak sortzeko. Aldi berean, hilabetero, haurrek ikastetxean antolatutako zinema emanaldi batean parte hartzen dute: Laurendi zine-taldea. Zinema-kultura aberasten duen ekimen libertigarria.

Ildo beretik, ikasle guzietan zinemaren ezagutzari buruzko klase batean parte hartzen dute. Urriaren 18tik 21era, 2., 3., 4. eta 5. urtekoak Baigorriko Oronozioa aterpetxean egon dira. Ama eskolakoak eta 1. urtekoak ekainean joan dira. Egonaldi horien denboran, bi film labur eginak izan dira ACA elkarte Jean-Claude bideogilearen laguntzarekin. Intrigak? Diruz beteriko gutun-azal baten desagerpen misteriotsua 2. eta 3. urtekoentzat eta *La Guerre des Boutons* (Botoien gerla) filmaren asmamen handiko egokitapena 4. eta 5. urtekoentzat.



Gurasoei beren haurrek aktore gisa dituzten dohainak miresteko bidea eskaintzeko xedez, bi emanaldi antolatuak izanen dira. Azkenik, ikastetxearen bestak zinemari eskainitako ikasturte bukaeraren azken klaketa markatu du: hezkuntza talde osoa bilduko da aktore gazteak ospatzeko eta haien ikusgarria ikusteko.



A PETIT PAS BITARTEKARITZA-GUNEA

A Petit Pas Lehen Haurtzaroaren Bitartekaritza-gunea (LHB) sei herrien arteko zerbitzu bat da: Arbona, Ahetze, Ziburur, Azkaine, Getaria eta Donibane Lohizune.

Sarbide urrik eta libreko gunea argibideak eskaintzen dizkie 0 eta 6 urte arteko haurrak zaintzeko bide bat bilatzen duten familiei.

LHB haurtzainendako baliabide-gune bat ere izaten da, mota anitzeko tailerrak antolatzeko bidea eskaintzen dielarik.

Gure herrian, hilabeteko lehen ostiral guzietan, haurtzainek lagundutako haurrek motrizitate tailerretan parte hartzen dute, Elkarteen Etxean kokatutako herriko aretoan antolatuak.

IKASLEEN MUGIKORTASUNA GURE LEHENTASUNETAN

Mugikortasunak bidearen segurtasunari buruzko gogoeta bat eskatzen du nahitaez. **Eskolarako bidean haurren segurtasuna bermatzea gure lehentasun nagusietariko bat da.**

Horretarako, **oinezkoen pasabide berri bat antolatua izan da RD 255 errepidean, Marguerite Schwab ikastetxea luzatzen duen etxartearen parean.** Zutoin ttipiak eta hesiak gehituak izanen dira segurtasun dispositibo horren azkartzeko. Bestalde, bi ikastetxeetatik hurbil, bi zirkulazio argi adimendun ezartzeko ikerketa bat aribidean da.



MOBY ECOMOBY

Ikastetxe publiko berrira heltzeko ohitura eta bide berriak egokitzea erronka garrantzitsua da. EcoMoby programa aitzina doa, mugikortasunen sindikatua-rekin elkarlanean.

Eskolara joateko bide alternatiboak eta aktiboak helgarri ezartzea ikastetxe bakoitzari dagozkion erronken eta erabiltzaileen ibiltzeko ohituren ulertzean datza. Horrek eskolako mugikortasunaren arloko eragile nagusien parte hartze aktiboa barne hartzen du: ikasleak, adin guzietakoak.

Horretarako sortutako batzordeak gogoetatzen segituko du eta interesatuak diren guraso berriak urraspidean parte hartzera gomitatuko ditu.

TXIK TXAK: ESKAERA BIDEZKO GARRAIO BERRIA: DENEI HELGARRI ZAIEN ATERABIDEA

TXIK TXAK eskaera bidezko garraioa abian da 2025eko urtarrilaren 6tik goiti. Gaurdanik, zerbitzu berria biztanle guzietan proposatua zaie. Zer aldatzen den eta nola baliatu azaldua zaizue!



Le transport à la demande

Zure erreserbari dagokionez: Bidaia erreserba daiteke abiatu baino ordu bat lehenago edo hilabete bat lehenago ere. Horretarako, 05 47 75 76 64 zenbakira deitu behar da, astelehenetik ostiralera, 7:30etik 12:30era eta 13:30etik 18:00etara.

Itzultzeari dagokionez: Etxera itzultzeko bidaia ere erreserba daiteke modu berean. TXIK TXAK etorriko da zure bila utzi zintuen tokian eta etxera edo hautatutako helbidera eramane zaitu, finkatutako eremuan.

Bidaia egunari dagokionez: Bidaia egunean, finkatutako hitzordua baino 5 minutu lehenago izan behar da etxe aitzinean edo adostutako helbidean. Autobusean igotzean, ez ahantz gidariari zure TXIK TXAK garraio txartela erakustea.

Zer aldatzen da?

Zoritxarrez, 51. linea erregularra desagertzen da, baina orain TXIK TXAK eskaera bidezko garraioak hartzen du segida, denei helgarri, elbarrituei barne.

Zerbitzu berri horrek norberari egokitutako bidaia erreserbatzeko bidea eskaintzen du, eskatutako helbidetik helmuga hurbileraino, izan erosketak egiteko, mediku bat ikusteko edota beste autobus zerbitzu bat erabiltzeko.

ARBONNE

- ✓ AHETZE : Place
- ✓ ARBONNE : Mairie - Herriko Etxea
- ✓ BIARRITZ : Gare de Biarritz (correspondance 5, 6, 8, 12, 21, TER 51)
- ✓ BIDART : Mairie de Bidart (correspondance 3, 18, 21)
- ✓ GUETHARY : Gare de Guéthary (connexion TER 51)
- ✓ SAINT-JEAN-DE-LUZ : Parking P+R Iargia (correspondance 3, 17, 18)
- ✓ SAINT-JEAN-DE-LUZ : Centre commercial (correspondance 16, 18)
- ✓ SAINT-JEAN-DE-LUZ : Halte routière (correspondance 3, 4, 16, 17, 18, 26, 45, 46, TER 51)

Zenbat balio du?

TXIK TXAK prezioak aplikatzen dira gainkosturik gabe eskaera bidezko garraioa baliatzeko.

Bidaia bakarreko txartela eros daiteke 0,99€tan (10 txarteleko multzoa erosiz) edo 1,30€tan ale bana.

Hilabeteko eta urteko TXIK TXAK harpidetzek ere balio dute.

Txartelei eta prezioei buruzko argibide gehiagorako, esteka hau kontsulta dezakezue: <https://www.txiktxak.fr/titres-et-tarifs/titres-occasionnels/>.

2025EKO BIZTANLEEN ERROLDA



2025eko urtarrilaren 16tik goiti, Arbonako herriak biztanleen errolda abian jarriko du biztanle eta bizitegi kopurua zehazteko xedez.

Erroldaren urraspidea

Gure herrian, errolda bost urtetarik behin egiten da.

- 1. Jakinarazpena:** Gutun bat utzia izanen zaizue gutun-ontzian.
- 2. Erroldagilearekin harremana:** Herriak enplegatutako erroldagileak azalpen oharra emanen dizue, zuzenean edo zuen gutun-ontzian.
- 3. Aginduak:** Azalpen oharreko argibideak segi itzazue erroldatua izateko. Dokumentu hori funtsezkoa da, artoski gorde ezazue.

Aholkatua zaizue linean erroldatzea

- **Abantailak:** Linean erantzutea errazagoa da, bizkorragoa, herriari gutiago kostatzen zaio eta ingurumena begiratzen du.
- **Beste bideak:** Ezin baduzue linean erantzun, paperezko galdetegiak eskuragarri izanen dira erroldagileari eskatuz gero.
- **Urririkotasuna:** Errolda urrik da. Ordainez dirua eskatzen duten iruzurrezko webguneez mesfida zaitetzte.



Errolda, segurua da: zuen datu pertsonalak babestuak dira


- **Datuen babesa:** Erroldak Informatikaren eta Askatasunen Nazio mailako Batzordeak (IANB) onartutako prozedurak betetzen ditu.
- **Anonimotasuna:** INSEE galdetegiak anonimoki tratatzeko baimena duen erakunde bakarra da. Datu bat ere ez da erabilia izanen administrazio edo zerga kontroletarako.
- **Argibideen erabilera:** Zuen izena eta helbidea beharrezkoak dira ale bikoitzik ez izateko, baina ez dira gordeko datu baseetan.
- **Lanbide-sekretua:** Galdetegia ikus dezakeen pertsona orok, erroldagileak barne, lanbide-sekretua errespetatu behar du.



Zuen parte hartzea ezinbestekoa da. Legeak baitezpadakoa dela badio ere, zuen parte hartzea, oroz gainera, herritar betebeharra da, soila eta denen onerakoa.

Zergatik erroldatuak zarete?

Erroldak Frantziako biztanle kopurua eta herri bakoitzeko herritarren kopurura ezagutzeko bidea eskaintzen du. Halaber, herritarrei buruzko estatistikak ematen ditu: adina, lanbidea, erabilitako garraiobidea, bizitegia, etab.



Argibide nagusiak:

- Errolda garaia: 2025eko urtarrilaren 16tik otsailaren 15era.
- **Dokumenturik ez: Zuen gutun-ontzian dokumenturik ez baduzue jaso hemendik 2025eko urtarrilaren 23ra, Herriko Etxearekin harremanetan sartu.**
- Legezko betebeharra: Errolda baitezpadakoa da legearen arabera.

Erroldaren emaitzak funtsezkoak dira. Honakoak ahalbidetzen ditu:

1. Estatuak herriko kontuari esleitzen dion parte hartzea biztanle kopuruaren arabera da: Zenbat eta biztanle gehiago izan, hainbat eta zuzkidura handiagoa izanen da. Beraz, erroldari erantzuteak herriari bere ibilerako beharrezkoak zaizkion diru-baliabideak lortzeko bidea ematen dio.
2. Tokiko irudia zehaztea: Herriko kontseilarien kopurua, hauteskunde modua eta farmaziak bezalako zerbitzuak ukaitea, erroldatutako biztanle kopuruaren arabera finkatuak dira.

3. Antolaketa publikoen ezagutzea zehaztea: Erroldak ekipamendu publikoak (garraioa, ikastetxeak, kiroldegia), saltegiak, bizitegiak eta abarren beharrak agerian ezartzen ditu.

Herritarren ezagutza zehatzak ekintza publikoak biztanleen egiazko beharrei egokitzeko bidea eskaintzen du. Ondorioz, zuen parte hartzea funtsezkoa da.



Harremanetarako:

Gure herriko erroldari buruzko edozein argibiderako, Herriko Etxearekin harremanetan sartu: mairie@arbonne.fr edo 05 59 41 94 66

Biztanleen erroldari buruzko argibide gehiagorako, webgune hau bisitatu [le-recensement-et-moi.fr](<https://le-recensement-et-moi.fr>).

HIRIGINTZA: THPa ETA HORREN LEHEN ALDAKETA

Zenbait dokumentutan agertzen diren arau zehatzek dute herri-hirigintza arautzen. Jarraian gogoraraziko ditugun dokumentuak:

THP (Tokiko Hirigintza-Plana)

2017ko urtarrilaren 1etik goiti, Iparraldeko 158 herriek lurralde antolaketaren eskumena utzi dute Euskal Hirigune Elkargoaren esku. Gutun batek urraspidea osatu du, elkarlanaren moduak finkatzeko xedez.

Euskal Elkargoak indarrean den Arbonako THPa onartu eta bozkatu zuen 2019ko uztailaren 20an eta abenduaren 14an.

THPa lurraldeko hirigintza eta arauzko planifikazio estrategikoaren dokumentua da. Herriko antolaketa eta garapen proiektua azaltzen du. Bizilekua, mugikortasuna, zerbitzu eta ekipamenduak, turismoko jarduerak eta jarduera ekonomikoak, laborantza-garapena, ondare eraikia eta landare-ondarearen barne hartzea eta abarren arloko norabideak finkatzen ditu, garapen iraunkorraren eta ingurumenaren zaintzaren helburuak betez.

Norabide horiek hirigintza arloko baimen eskaerei dagozkien arauak zehazten dituzte: eraikitzeko baimena, antolatze baimena, obrak egin aitzineko deklarazioa, hirigintza agiriak...



HAU DA THPa:



Diagnostiko bat eta ingurumenaren hastapeneko egoera

Lurraldearen azterketa


Lekuen eta erronken egoera



AGIP bat (Antolaketa eta garapen iraunkorren proiektua)

Norabide nagusi bat hautatzea

Lurraldeko norabide nagusiak ondoko 10-15 urteetarako




Zonakatzea, araudia, antolaketa eta programatze norabideak eta eranskinak

Arauak finkatzea proiektuak gauzatzeko

AGIParen elementuak azaltzea, "non eta nola eraiki?" zehaztuz

THPa (Lapurdi Mendebaldeko Itsasbazterreko Herriarteko Tokiko Hirigintza-Plana)



AURREIKUSITAKO EGUTEGIA

2024: Diagnostikoa

2025: Antolaketa eta Garapen Iraunkorren proiektua eztabaidatzea. Helburua: herriko hauteskundeak baino lehen

2027: THPa finkatzea eta hitzartzearen bilana + ikerketa publikoa

2028: Onarpena

HIRIGINTZA: THPa ETA HORREN LEHEN ALDAKETA

Nola aldatu THPa, hTHPa onartu artean?

THP bat doi bat alda daiteke zenbait arau betez gero. Baimendutako aldaketa bilakaera mugatu batzuei buruzko prozedura da, Antolaketa eta Garapen Iraunkorren Proiektuaren norabideak aldatu gabe.


Ez ditu hauek ahalbidetzen:



EZ Sailkatutako gunee oihantsu bat murriztea.



EZ Laborantza-gune edo oihan-gune natural bat murriztea.



EZ Gibelondo txarrak izateko edo oso txarrak sortzeko arriskuengatik, guneen, paisaien edo natura-guneen kalitateagatik erabakitako babes murriztea / zabaltzea.



EZ Hiritzeko gunee bat irekitzea.

THPren lehen aldaketa:

Arbonako THPa aldatzeko prozedura hori bukatzeaz da, 2019an bozkatutako THPren ardatz nagusiak ez dituelarik zalantzan jartzen.

THPren lehen aldaketaren egutegia



THPren 1. aldaketari buruzko inkesta publikoaren helburu nagusia

“Behin betiko onartua izan aitzin, herritarrei proiektua aipatzeko aukera ematea, herritarren itxaropenak eta beharrak kontuan hartuak izan daitezen. »

Trukaketa denbora horren ondorioz, egokitze batzuk sar daitezke. Mandatari ikertzaileak **ALDEKO IRITZIA** eman zuen 2024ko abenduaren 20an, dokumentu-mota horrendako usaiako erreserba batzuk agertuz.

POLYSPORTS ELKARTEA: DENENDA KO JARDUERAK, ZUEN HERRIAREN BIHOTZEAN

Denen zerbitzuko den elkarte bizia!

Polysports elkarteak adin guzietan egokitutako jarduerak ugari proposatzen ditu, prezio apaletan, bakoitzaren atsegina eta ongizaterako.



MiniMouv: Ttipi-ttipiendako berritasuna

Elkarteak asteroko klase berri bat proposatzen du, MiniMouv, 3 eta 6 urte arteko haurrentzat bereziki sortua. Saio jostagarri horiek soinketa eta motrizitatea lantzeko lehen irakaspen bat eskaintzen dute, gorputz garapena eta norbere baitako konfiantza lagunduz aldi berean. Jarduera iragarri eta pizgarrien bitartez, haurrak mugimenduaren ongiez ohartzen dira.

Bildutako arrakastaren ondotik, Polysports elkarteak bigarren saio bat gehitzea pentsatzen du, eskaerari erantzuteko.

Arte plastiko ikastaldiak sormena askatzeko

Eskolako oporretan, Polysports elkarteak arte plastiko ikastaldiak proposatzen dizkie 6 urtez goitiko haurrei eta nerabeei. Muriel Toulet artista eta irakasleak animatutako tailerrak lau arratsalderen denboran iragaten dira, baina saio bat edo batzuetan parte hartzeko aukera ere bada.

Gazteek zenbait arte teknika esploratzen dituzte, sormena eta kultura orokorra aberastuz. Egunero, tailerretik haidorki ateratzen dira beren sorkuntzarekin, ikasi dutenaren eta beren asmamenaren lekuko.

Elkarte abenturan parte hartu

Zuen sustengua ezinbestekoa da Polysports elkarteak mota anitzeko jarduerak helgarriak proposatzen segi dezan. Ekimen berri batzuk sortuak izan daitezke, hala nola yoga, piano edota giharrak azkartzeko klaseak, gutieneko parte hartzaile kopuru batek interesa agertzen bada.

Zuen ideiak partekatzeko, izena emateko edo laguntza eskaintzeko boluntario gisa, elkartearekin harremanetan sartu polysports.arbonne@gmail.com helbidera idatziz edo Facebook orriaren bitartez: Polysports Arbonne.

Abentura eder horretan eta zuen herriaren bizitasunean parte hartu!



ARBONNARAK

Goresmenak gure kirolari jeinutsuei! Aizkoa Iturrino eta Maritxu Housset 1. sailean, Haize eta Elea Genty xitoetan txapelak atera dira Ipar Euskal Herriko pilota goma hutsezko lurraldeko batzordean.

TÉLÉTHON EKITALDIA: SEKULA BAINO ARRAKASTATSUAGO



Badu 26 urte historia politik irauten duela! Gizaki abentura paregabea da, Edina Bartels lehendakariak eramanik, boluntario engaiatuz inguraturik. Ekitaldiak nehoiz ikusi gabeko eskuzabal-tasun eta suhertasun oldarra piztu du. Ikasleak eta merkatariak, bai eta liburutegiko boluntarioak, partikularrak eta profesiona-lak ere, denek beren indarrak batu dituzte asteburu nagusi hori kari. Beren mobilizazioari esker, sekula baino diru gehiago bil-dua izan da.



LAU HERRI



Esku huska zale errabiatuak diren ahezta, arrangoiz-tar, arbonar eta basusartar gazteak biltzen dituen pi-lota elkarte da Lau Herri. **Gaur egun, elkarteak 82 lizentziadun biltzen ditu, 70 pilotari aktibo barne.** 6 urtetik goiti, gazteak pilota goxoan hasten dira Bil Tokin edo APAJH elkarteke ezker paretan. Ondotik, "egiazko pilotara" pasatzen dira eta Arrangoitzeko trinket eta pilota plazan trebatzen dira, batzuek lehen txapelketetan parte hartuz.

Urtero, **gure pilotaririk hoberekek fama biltzen dute kantxetan**, Euskal Herriko edo Frantziako txapel-dun tituluak lortuz, eta txapelketa ospetsuetan

parte hartuz hala nola udazkeneko hitzordu bazterrezina bi-lakatu den Bil Tokiko Joko Berri txapelketa.

Azken denboraldian, berriz ere, Lau Herri elkarteke pilo-tariak fama bildu dute:

Allande Chapelet pilotariak, B kadet saileko Euskal Herriko trinket txapelduna, A kadet saileko finala joko du laster, Bar-dozeko Lucas Bidart pilotariarekin, binaka. Frontball 1. saileko finalera ere iritsi da, emaitza ederra soilik 16 urte dituen gaz-tea izanik!

Nicolas Dufau eta Thomas Dizabo 1. saileko frontoi finalera iritsi dira bitan, behin federazio-txapelketan, Arbonako beste-tako igandean iragan delarik.

Azkenik, Xabi Etcheveste pilotari nekazina 3. saileko Euskal Herriko txapeldun izan da, Jean Sallaberryren ondoan.

Elkartearen ospeak zabaltzen segitzen du zuzendari bo-luntarioen hutsik gabeko engaiamenduari, gurasoen sustenguari, tokiko partzuer leialen laguntzari eta lau he-rrien elkarlanari esker.

Hona Topaketak elkartearekin Andere-Seroraenean antolatutako erakusketen egutegia:


- 03/20tik 03/30era taldekako erakusketa
- 04/10etik 04/27ra Mélodie Peignaux (bideo zeramikak)
- 05/08tik 05/25era Dominique Hoddes (margolanak)
- 05/05etik 05/22ra Marc Dilet (muntaketak/marrazkiak)
- 06/03tik 06/20ra Jana Lottenburger (grabaturak, igeltsuzkoak eta zeramikak)

AITZINAMENDU HANDIA ZUNTZ OPTIKOAREN ZABALTZEAN ARBONAN

Arbonan zuntza zabaltzeko proiektua bukatzean da Arbonar guzietan zuntz konexioa ukan dezate-
la delarik xedea, 2025eko urtarriletik goiti.

THD64 sare eraikitzaileak indar gehiago egin
ditu 2024ko azken hiruhilekoan helburua er-
diesteko. Gaur egun, herrian zerrendatutako 1
397 lokaletatik 1 285ek har dezakete zuntz har-
pidetza, eta beste konexio anitz eraikiak izan
dira abendu bukaeran. Gaurdanik, 613 etxe eta
enpresek hartu dute zuntz harpidetza Arbonan
dauden operadoreen aldean, hala nola Orange,
SFR, Bouygues Télécom eta Free.

Oraindik zenbait etxe lotu beharko dira 2025eko
urte hastapenean.



Herriak zuzenean kudeatzen duen txakurtegiarik ez baita, hitzarmen baten bitartez txakurtegiaren kudeaketa Animalien Babeserako Elkartearen esku uztea erabakia izan da, Donibane Lohizunen kokatutako "Ipar Euskal Itsasbazterreko Aterpearen" kudeatzailea delarik.

Iristen direlarik, txakur eta katuak izanen dira txakurtegiaren ardurapean, beren zaintza eta artatzea segurtatu-
ko dutelarik Arbonako herriaren izenean.

APARKATZEKO ARAUEI BURUZKO OHARRA

Aparkatze mugatuko eremua:

Bil Tokiren parean, CD 255 bidearen luzeran kokatutako aparkalekuetara zabaldua den eremuak aparkatzeko disko bat eskatzen du. Herriko etxean eskuragarri den diskoak heltze tenorea jakinarazi behar du eta haizetakoaren gibelean ezarria izan behar da, kontrolatzaileek ongi ikusteko gisan.

Pilota plaza, espaloiak eta herriko bide-bazter- rrak:

Hertsiki debekatua da eremu hauetan aparkatzea:

- **Pilota plaza:** Trukatze eta giro goxoko gunea.
- **Espaloiak:** Oinezkoen segurtasunerako gunea. Ibilgailuak izatea espaloietan haien erabiltzea tra-
batzen du eta oinezkoak arriskuen ezartzen ditu.
- **Herriko bide-bazterrak:** • Leku horietan apar-
katzeak gidarien ikusmena murriztu, oinezkoen
eta ibilgailuen zirkulazioa oztopatu eta sokorrien
esku hartzea traba dezake larrialdi baten kasuan.

Arau horiek urratzen dituenak (diskorik ez ematea, baimenduko epea gainditzea, aparkatze trabagarria, etab.) 35€ko isuna bil dezake.

Denen segurtasuna eta lasaitasuna bermatzeko, zuen gogo ona eta laguntzagatik eskertzen zaituztegu.

"IPAR EUSKAL
ITSASBAZTERREKO
ATERPEAREKIN"
HITZARMENA

18 SORTZE

Léonie DANOIS MARTIN 01/09,
Agathe DE BUTTAFOCO 02/04,
Adèle LOUVEL 02/10,
Jade LABORDE 03/15,
Raphaël HORVATH 04/30,
Marley SOULET TREY 05/15,
Thalia HUBERT 05/22,
Jade DUPLANTIER 05/28,
Rose HARMAND 06/15,
Baptiste PLASSAT 06/21,
Nahia FAHAM 07/01,
Victor DEGOUL 07/09,
Julen DUFAU 08/17,
Alessio BARBASTE 08/26,
Romane BACQUET FERNANDEZ 08/26,
Léo JOUSSEMET 09/21,
Paula MURUETA-GOYENA 10/19,
Valentin CASSAN 12/11

13 EZKONTZA

Lisa FORGEARD eta Patxi LANDARRETCHÉ,
Aude NARZABAL eta Franck HARGOUS,
Haizea PUENTE GONZALEZ eta Mikel SISTIAGUE,
Lucie RAUX eta Benjamin CHAUVEAU,
Sophie CARLSEN eta Sébastien DUVAL,
Laurence CAZEILS eta Mathilde GILBERT,
Ronnyuth SWADRIOKUL eta Philippe ORÉNÈS,
Erika LARRÈRE eta Kévin FORA,
Alisée COPIN eta Éric COMBES,
Anaïs MARITON eta Loïc GUILLEMINOT,
Charlotte DUVAL eta Marc SAUVOUREL,
Chloé MORLAAS eta Vincent PANZANI,
Paulina VACHET eta Javier BILBAO LEARRETA

53 HERIOTZA (35 adinekoen etxean)

Jean ELISSALDE, Marie-Thérèse SALLABERRY vve. CRITELLI, Roger CHIBAU, Annie PETIT, Jean-Pierre DAVRIL, Claude MESSINES, Anne-Marie SAINT-MACARY ép. YRASTORZA, Didier BOROTRA, Guy VÉRITÉ, Georges LESIEURE DESBRIERE, Gérard CASTAING-LAHAILLE, Michel STRAUB, Claude ELLIÈS, Roger GOVIN, Arlette GUILLOCHON, Hélène MONTAGUT, Roger VERSTAEN, Françoise LAMBERT vve. LALANNE, Thérèse ANDRÉ vve. BONNIÈRE, Monique VOISARD vve. VOISARD, Pierrette ETCHELECOU ép. CARPY, Anita JORAJURIA ép. OLCHEsqUI, Jean-Claude SAINDENIS, Pierre BERBINEAU, Marie GUIFFRE vve. HAÏTZAGUERRE, Jean-Jacques PILLON, Catherine FAYANAS vve. ELHORGA, Henri FALXA, Jean-Louis FATAUD, Jean LUCAS, Agnès CAROVIS vve. BABY, Françoise LECLERCQ, Francis MENSENCAL, Monique HARAN vve. POLITE, Gérard FERNANDES, Auguste LARCEBAL, Marie BROCH d'HOTELANS vve. DE CHARRY, Alain DISSARD, Jean-Pierre MIRANDA, Gérard LEBESNERAIS, Anne LAURENZI vve. INCHAURRAGA, Jean-Louis LARRONDE, Marie LLUCH ép. BRADA, Rosine IZAC ép. MAQUE, Louise LARREDE vve. DUBOURG, Marc GRIVEAUX, Françoise SCHROEDEL ép. TAILHARDAT, Frédéric BULIN, Marie DULUC vve. MICHELENA, Paul BOSQUE, Angèle CHALARD vve. LATAUD

OPOSIZIOAREN IRITZI ZUTABEA

Eskuratu testua ez da argitaratua izan, mandatari ikertzailearen txosteneko zenbait pasarte-hautaketa batzuk, ez baitute adierazitako aldeko iritzia argiki agertzen eta irakurleak nahas-raz baititzake. Neurri horren helburua da informazio bidezkoa eta errealitatearekin bat dato-rrena bermatzea.

URTEARI BEGIRA 2024.

